HEZKUNTZA PROGRAMA 2023–24

TABAKALERA

tabakalera.eus

Posterreko irudia: Laura Ibañez López

“Artistek ez dugu artelanik ekoizten. Praktikak asmatzen ditugu. (...) Praktika horiek espazioa, denbora, gorputz-organoak, mugimenduak eta pertzepzioa erabiltzeko moduak eta esperimentatzeko protokoloak dira. (...) Praktika artistikoa zeharkatze-potentzia bat da”

Silvio Lang (2019). *Manifiesto de la práctica escénica.*
In B. Hang y A. Muñoz (ed.), *El tiempo es lo único que tenemos.*

Hezkuntza praktika bat da. Entrenamendu bat. Ariketa bat. Esperimentu bat. Jokoan jartzen gaituen egoera bat; gure lekutik mugiaratzen gaituena, bestearekin hartu emanean jartzera bultzatuz. Eta hori da bere potentzia: gu, denok, zeharkatzea.

Elkar zeharkatzearen, afektatzearen helburu eta desio honekin aurkezten dugu 2023-2024 ikasturterako hezkuntza-programa.

Desio honekin batera, hezkuntza-praktiken konplexutasuna ere azaleratu nahiko genuke. Espazio ezegonkor eta aldakorrak dira ikaste-egoerak edo uneak, non gure ustetan ez dagoen ez arrakasta ez porrot borobilik. Kontutan hartu beharreko elementu guztien gurutzaketan oreka ezegonkor bat sostengatzea litzateke helburua. Izan ere, beharrezkoa da hezkuntza prozesuen bidez agertzen diren ezinegonak ikusaraztea. Ezinegon uneak izan daitezkeelako espektatiben apurketa bat, eta erosoak diren moldeekiko urruntze bat. Ikaskuntza eta eraldaketa potentzia handia dago hor, deseroso egoteak sortzen digun adi egote horretan. CA2M museoko hezkuntza arloko kideek duela urte batzuk *No sabíamos lo que hacíamos* argitalpenean abiatutako elkarrizketa iradokitzaileetara batu nahi dugu. Badakigulako norantz joan nahi dugun, baina horretarako ez dagoelako bide-orri finkorik. “Imajinatzea imajinatzen ikastea” delako, ezustekoarekin, esaten eta ikusten ez denarekin mugitzen den praktika bat.

Une horietan, hezitzaileon erreminta-kaxan konfiantza izatea dagokigu, beste ikaskuntza-leku batzuetara eramango gaituzten nahasketa berriak probatzeko. Lantegi batetik bestera, aurten gorputzarekin entzuten saiatu gara. Ahotsarekin idazten. Pentsamenduarekin sokasaltoan aritzen.

Zatozte eta asmatu ditzagun elkarrekin elkar afektatzeko praktikak.

01. TALDEENTZAKO LANTEGIAK

01.1 ARTE PRAKTIKA GARAIKIDEAK

01.2 ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

01.3 SORKUNTZA- LABORATEGIAK

02. DEIALDIAK

03. ESKOLA: HEZITZAILEENTZAKO ESTRATEGIA ETA BALIABIDEAK

INFORMAZIO GEHIAGO ETA IZEN-EMATEAK
hezkuntza@tabakalera.eus
Tabakalerako informazio puntua
T. +34 943 118 855

Andre Zigarrogileak Plaza, 1
20012. Donostia/San Sebastián

TABAKALERA

tabakalera.eus

01. TALDEENTZAKO LANTEGIAK

Talde-lantegietan elkarrekin egon eta elkarrengandik ikasteko espazioak sortu ohi ditugu, kolektiboki bizitzeko esperientziak aktibatuz. Edozein ikaskuntza, harremanen espazio eta denbora horretan gertatzen baita.

Horretarako, orotariko abiapuntuak topatuko dituzue jarraian, hiru bloketan antolatuta - Tabakalerako lan-ildo eta baliabideak jarraituz. Gorputzetik, entzutetik eta esatetik elkarrekin egiteko, formatu artistiko garaikideak erabiliz. Gure buruaren zein munduaren ikuskera alternatiboak ezagutu eta eraikitzeko. Edota kulturara egitetik gerturatzeko; ezagutza praktikoak erdigunean jarriz, egitearen kulturak jakintza sortzen duela aldarrikatuz.

Izan ere, esperimentazioan oinarrituta egiten dugu lan. Ezaguna ez zaigun zerbait taldean esperimentatzeak gure lekutik mugiarazten gaituelako; ezustekorako, jolaserako, akatserako eta galdera berrietarako aukera emanez. Baita erlazionalak diren ikaskuntza- eta bizi-espazio komunak eraikitzen jarraitzeko.

● HH | △ LH | ◆ DBH + BATXILERGOA + HELDUAK

ORDUTEGIA: asteartetik ostiralera, 10:30-14:00
PERTSONA KOPURUA: 15-25 pertsonako taldeak
IZEN-EMATEA: hezkuntza@tabakalera.eus
(Gutxienez bi aste lehenago eman behar da izena. Beste ordutegi, adin edo talde handien kasuan galdetu)

01.1 ARTE PRAKTIKA GARAIKIDEAK

ERAKUSKETARA ATERA — 1h30min | △ ◆
Erakusketa eta arte garaikidearekin lotutako lantegia

Erakusketara ateran, momentuan dagoen erakusketaren araberako lantegi bat proposatuko dugu. Ariketa ezberdinak eginez erakusketaren edukietara hurbilduko gara. Aurtengo ikasturtean izango ditugun erakusketetan bereziki eskulturaren, instalazioen eta zinemaren gaiak landuko ditugu.

2023/24 erakusketak: *ikasturte honetako erakusketek askotariko lan eta artistekin esperimentatzeko aukera ematen duten dispositibo moduan erabiliko ditugu. Horretarako, eskura izango ditugu, besteak beste, Bilboko Arte Ederretako Museotik Donostiara bidaiatu duen bilduma oparo bat; emakumeek gobernatutako mundu utopiko baten haria jarraitzen duen animaziozko film baten lan-prozesua; Artea, zientzia, teknologia eta gizartea ildotik elkarlanean garatutako ikerketa- eta sorkuntza-praktikak; edota eskulturara gaur egunetik gerturatzeko modu ezberdinak.*

KARAOKE — 1h30min | △ ◆
Soinu-arte lantegia

Musikara eta soinura hurbiltzeko dauden hamaika hizkuntza eta modu ikertzeko xedea duen instalazioa da Scala, Tabakalerako eskailera nagusian kokatzen dena. Scalarekin harremanduta dagoen lantegi honetan mikrofonoa piztuko da eta entzuteari denbora, xuxurlari bolumena, soinuei esanahia eta hitzari ahotsa emango zaio.

SOKA-SALTOAN — 1h30min | △ ◆
Performance lantegia

Soka-saltoan aritzeak modu erritmiko, ordenatu eta soinudunean errepikatzen den ekintza batean parte hartzea dakar, banaka edo taldean. Lehiarik gabeko jolasa da, espazioa okupatzeko modu bat ere izan daitekeena. Garena eta pentsatzen duguna kontatzeko estrategia bihurtuko dugu soka-saltoa lantegi honetan. Gorputzetik, hizkuntzatik eta mugimendutik egindako ariketa bat.

SITU-AKZIOAK — 1h30min | ● △
Esperimentaziorako paisaia-laborategiak

Zentzumenak aktibatu, arteaz gozatu, ikasi eta esperimentatzeko gunea da Situ-akzioak. Proiektu honek esplorazio sentsorialerako jolas irekiak diseinatzea planteatzen du. Edizio bakoitzean, arte garaikideko hainbat proposamenen bitartez, txikienek eta txikienentzat pentsatu eta sortutako jolas librea gauzatzeko proposamenak bideratzen ditugu. Lantegi hau apirila eta ekaina bitartean egingo da.

01.2 ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

SOINULAB — 1h30min | ● △ ◆
Soinu lantegia

HH: ENTZUMEN LANTEGIA
HHko ikasleei zuzendutako lantegi honetan entzulearen rolean jarriko gara, entzumenaren funtzio motriz eta sentsorialak, intentsitatea eta bolumenaren pertzepzioa garatzeko esperientzia izanik.

LHTIK AURRERA: BIKOIZKETA LANTEGIA
Imajinatu film bat ikustean pantaila beltzera joaten dela. Ulertuko al zenuke soinuen bitartez bakarrik? Ahots bikoizketa eta Folley teknikaren bitartez sortzaile egingo gaituen lantegi honetan, mutean geratu diren mugimenduzko irudiei esanahi dimentsio berri bat emango diegu.

BIDEOGILEAK — 1h30min | △ ◆
Ikus-entzunezkoen lantegia

LH: kromaren Erabilera
Lantegi honetan kroma pantaila berdearen magian murgilduko gara. Kromak ematen dizkigun aukera guztiak baliatuko ditugu bertan gure bideoklip, pasarte edo albistegiak sortzeko. Etorriko al zara Medialabek duen platoa erabiltzera?

DBHtik aurrera: bideo edizioa
Lantegi honetan zinema-sorkuntzaren prozesuan ematen diren hainbat fase ezagutuko ditugu, gidoi bat sortu, onoren hemen ditugun kamerekin grabatu eta azkenik edizio lanarekin amaitu. Animatuko al zarete ikus-entzunezko ekoizpen baten bidea ezagutzera?

MUGI, GELDI, MOVIE — 1h30min | △ ◆
Animazio lantegia

Stop Motion ikus-entzunezko teknika, irudiak mugimenduan sortzeko animazio-aldaera klasikoenetako bat da. Lantegi honetan teknika horretan sakonduko dugu, eta sortzeko aukerak arakatuko ditugu. Edozein materialek balio du istorioak sortzeko: gure gorputzek, plastilinak, objektuek edota argazkiek, besteak beste.

ZINEMARAAAA — 1h30min | ◆
Proiekzioak

Tabakalerako zinema-aretoa irekiko da Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasle-talde eta elkarteei zine saioak eskaintzeko. Ikasturtean zehar hiru film proposatuko dira, ondorengo datetan:
Abenduak 14-15, Martxoak 21-22, Ekainak 6-7

Zine saioetan proiektatzen diren filmak abiapuntu bezala hartuta, gida-pedagogikoak ere sortzen ari gara. Informazio gehiagorako: https://www.tabakalera.eus/eu/zinemaraaaa-zinema-aretoa-ireki-da-0

01.3 SORKUNTZA-LABORATEGIAK

KOLORETAKO ITZALAK — 50min | ● △
Argia eta gorputzarekin esperimentatzeko gunea

Irudiak sortzeko hainbat modu daude. Marrazki bidez sortu ditzakegu, kartulinak eta bestelako material batzuk erabiliz... Eta irudi horiek argiarekin sortzen baditugu? Eta itzalarekin? Eta kolore ezberdinetako itzalen bitartez? Argia proiektatzen duten tresnak eta gure gorputzak erabiliz, taldeka zein bakarka irudiak sortuko ditugu lantegi honetan.

HARRI, ORRI, AR — 1h30min | △ ◆
Autoedizio lantegia

Autoedizioa pertsona edo kolektibo batek sortutako argitalpena da, non haren sorkuntza-prozesu osoa kontrolatzen duen. Lantegi honetan argitalpen artistiko bat sortuko dugu eta hainbat formatu deskubrituko ditugu, besteak beste, argazki-liburua, fanzinea (fan-magazina) etabar; horretarako, artisten lanak, material eta teknika ezberdinak ezagutuko ditugu.

IRUDI TWO — 1h30min | △ ◆
Grabatu lantegia

Irudi bat nahi adina aldiz errepikatzeko aukera ematen duten teknikak ezagutuz, paper gaineko estanpazioaren munduan barneratuko gara eta grabatuko punta lehorra teknikaren bitartez iruditegi pertsonal bat sortzeko aukera izango dugu.

TIN.TA! — 2h | ◆
Serigrafia lantegia

Irudi digitalek gobernatutako errealitate honetan, pantailetatik irten eta gure ideia zein mezuak paperera ekartzea proposatzen dugu. TIN.TA! adierazpen grafikoko lantegi-laborategia da, gure leloak pentsatu, partekatu eta ezagutarazteko espazioa. Gure gorputzak aldarrikatzeko, gure ahotsak zabaltzeko eta estetika zein bizitza anitzagoak bilatzeko tokia da.

ISPILU-IRUDIAK — 2h | ◆
Kontakizun kolektiboen lantegia

Lantegi honetan eguneroko irudi pertsonaletatik abiatuko gara kontakizun kolektibo berriak sortzeko. Konbinazio- eta konposizio-jolasen bidez istorio berriak sortuko ditugu, talde gisa irudikatuko gaituztenak eta dauzkagun ohiturak, gorputzak zein egiteko moduak bilduko dituztenak. Lantegi honetarako, parte-hartzaile bakoitzak bere eguneko 5 unetako 5 irudi aurkeztu beharko ditu.

KONEKTATZEN — 1h30min | △ ◆
Elektronika lantegia

LH: Errobotika
Errobotikaren oinarriak ezagutzen hasteko lantegia da hau. Errobota eraiki ahal izateko programazioaren hastapenak landuko dira harekin jolasean aritzen garen bitartean: eman beharreko urratsak pentsatu, gailua programatu eta, agindu egokiak emanez, erronkak gainditu beharko ditugu.

DBHtik aurrera: Elektrizitatea, elektronika eta programazioa
Elektronika eta programazioaren oinarrizko kontzeptuak barneratuko ditugu, aire- edo soinu-sentsore baten eraikuntzatik, abiatuta Arduino edo Scratch bezalako hardware eta software plataforma askeak erabiliko ditugu. Ekimen honen helburua sentsoreen aukerak aztertu eta hauek probatzen hastea da.

PLASTIK FANTASTIK — 1h30min | △
Birziklapen lantegia

Ekologia pil-pilean dagoen gaia den momentuan, birziklapenak eta bigarren eskukoak modaren, arkitekturaren edota arte plastikoen esparruak hartu ditu. Kontzientzia ekologikotik egunero sortzen ditugun plastiko hondakinekin gaikako bilketa egiten ikasiko dugu, plastiko ezberdinak ezagutuz eta bereiziz. Birziklapenetik imajina ezin ditzakegun objektuak sortu daitezkeela ikusteko aukera ere izango dugu.

GAME ON — 1h30min | ◆
Bideo-jokoak sortzeko lantegia

Bideo-jokoen ekoizpenean murgiltzeko pentsatuta dagoen lantegia da. Aitzitik, jokoa erabakiak hartzearekin, komunikazioarekin eta hausnarketarekin lotutako gaitasunak lantzen dituen fikzio bat da. Beti gustatu izan zaizu jolastea baina, inoiz pentsatu al duzu zure bideo-jokoa sortu zenezakeela?

02. DEIALDIAK

Lantegiek eskaintzen diguten unean uneko harremanetik haratago, ibilbide luzeagoa duten prozesuak garatzeko dugun interesa asetu nahi dute deialdiek. Araututako hezkuntzatik kanpoko eragilea izanda, hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan aritzeak elkarrengandik ikasteko eskaintzen dizkigun aukerak funtsezkoak direla uste dugu. Ikasturtean zehar luzatzen diren prozesu hauek aukera ematen dute eragile ezberdinen arteko harremanean sakondu, elkarrekin bide berriak esploratu eta hausnarketa bateraturako espazioak sortzeko.

PRAKTIKASTIKA
PRAKTIKASTIKA lankidetza proposamen bat da, Tabakalerako Hezkuntza Sailak eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batek eskola-eremuan artea beste modu batzuetan jorratzeko aukera emango duen proiektu bat egin dezaten epe luzera. Lankidetzako lan honen helburua da arte-sorkuntza proiektu bat garatzea ikasturtean zehar, ikaskuntza prozesu esperimental bezala.
2023-24 ikasturteko prozesuan parte hartuko duen ikastetxea Tabakalerako webgunean egongo da ikusgai.

IKASGELATIK MEDIALABERA: ESKOLEKIN PROIEKTUAK
Deialdi honen helburua eskola esparrutik irten eta Tabakalerako Medialaben, bertako taldearekin batera, egitasmoa bat gauzatzea da; eta, era berean, zerbitzu desberdin bat eta eskaintzen dituen aukera guztiak erabili eta esperientziaz gozatzea. Aurkeztutako proiektu-proposamenek ondoko hiru lerro hauetara erantzungo diote: bideogintza, jolas-ekoizpena edo soinu sorkuntza.
2023-24 ikasturteko prozesuan parte hartuko duten ikastetxeak Tabakalerako webgunean egongo dira ikusgai.

03. ESKOLA: HEZITZALEENTZAKO ESTRATEGIA ETA BALIABIDEAK

Tabakalerako hezkuntza arloan praktikatik hausnarketara eta pentsamendutik egitera salto egiten dugu, lan-filosofia moduan. Ez ditugu bi eremuak banatu nahi, bata bestearengandik elikatzen delako. Diskurtsoak gure praktika ezin duelako jan, eta alderantziz, hezkuntza-praktikari buruz hitz egin eta ikaspenak kolektibizatzea oso garrantzitsua delako. Eskola hezkuntzako ikerketara zabalik dagoen gune bat da: hezkuntzako profesionalentzat eta interesa duten beste pertsonentzat (irakasleak, hezitzaileak, ikerlariak, artistak...) pentsamendu-programak eta baliabideak eskaintzea, baita testuinguruko eta nazioko sareetan lankidetzan aritzea ere.

IRAKASLEENTZAKO PROGRAMA
Irakasleak zarete Hezkuntza proiektuaren aliatu handienetako bat. Zuei esker dakigu zer gertatzen den Tabakaleratik kanpoko beste hezkuntza-guneetan. Zuekin partekatzen ditugu gure errealitateak eta ikasleenak, haien gatazkak, interesak, eskola-curriculumaren birak, lan-metodologia desberdinak, lorpenak eta hezkuntza-praktika kontziente eta eraldatzaile batek dakartzan zailtasunak.

Gure jardueraren hasieratik Tabakalerako Hezkuntza arloa eta hezitzaileak elkarrekin aritu gara lanean. Arteaz eta pedagogiaz elkarrekin pentsatzeko eta hausnartzeko bidea eginaz, estrategia eta egiteko modu desberdinak esperimentatzeko lekua eraikiz, eta, batez ere, lankidetza-gune aberasgarri eta atsegina bilatuz.
2023-24 ikasturterako jarduerak hainbat edukiz osatutako 3 prestakuntza-bloketan biltzea proposatzen dizuegu. Elkarri lotutako blokeak dira, baina modu isolatuan ere funtziona dezaketenak. Artearen eta hezkuntzaren inguruko edukiak, ikasgelan lan egiteko baliabide bihurtu nahi direnak.

1. BLOKEA. Formakuntza artista batekin (9 ordu)
2. BLOKEA. Tabakalerako erakusketa batetik abiatutako formakuntza (9 ordu)
3. BLOKEA. Teknika artistiko garaikidean formakuntza (9 ordu)

* 3 blokeak 2024ko urtarriletik ekainera bitartean egingo dira.